Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko maiatzaren 25a, osteguna — 100 — Jueves, a 25 de mayo de 2023

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## DONOSTIAKO UDALA

### Pertsonen Kudeaketa

*Donostiako Udaleko Langile 2 plaza behin betiko betetzeko deialdia (adimen desgaitasuna dutenentzat gordetako kupoa).*

Ogasun eta Finantzetako zinegotzi ordezkariak, emandako eskumenez baliatuz, 2023ko maiatzaren 22an honako hau ebatzi du:

«Goian aipatutako deialdiko eskabideak aurkezteko epea amaituta, Ogasun eta Finantzetako zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzordearen 2022ko urriaren 18ko erabakiaren bidez emandako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DU

*Lehenengoa.* Izangai onartuen eta ez onartuen behin-behineko zerrenda onetsi eta udaleko web orrian argitaratzea (I. eranskina).

Jakinarazten da dokumentu horretara sartzeko, posta elektroniko edo sms bidez jasoko den pasahitza erabili beharko dela.

Interesatuek erreklamazioak aurkez ditzakete ebazpen honen aurka, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita hamar egun balioduneko epean. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, izangaien zerrenda behin betikotzat joko da.

Erreklamazioa honako bide hauetakoren batetik egin behar da:

— Baliabide elektronikoen bidez aurkeztu nahi izanez gero Erregistro Telematikoaren bidez egin daiteke; edo www.donostia.eus web orriko «Lan Eskaintza» atalean, deialdian bertan, aurkeztu daiteke.

— Aurrez aurreko aurkezpena Donostiako Udaleko Erregistro Orokorrean egin ahal izango da Udalinfo zerbitzuko bulegoetan. Era berean, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako edozein tokitan ere aurkeztu daiteke.

*Bigarrena.* Epaimahai Kalifikatzailea izendatzea, udaleko web orrian argitaratutako II. eranskinean jasotako partaidez osatua egongo dena.»

Donostia, 2023ko maiatzaren 22a.—Maribel Iñiguez Azurmendi, Pertsonak Kudeatzeko zuzendaria. (3844)

## AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

### Gestión de Personas

*Convocatoria para la provisión definitiva de 2 plazas de Operario del Ayuntamiento de San Sebastián (cupo de reserva para personas con discapacidad intelectual).*

El concejal delegado de Hacienda y Finanzas en uso de las atribuciones conferidas, con fecha 22 de mayo de 2023, ha resuelto lo siguiente:

«Expirado el plazo de presentación de instancias de la convocatoria arriba referenciada, el concejal delegado de Hacienda y Finanzas en uso de las atribuciones conferidas por acuerdo de la Junta de Gobierno Local de fecha 18 de octubre de 2022,

RESUELVE

*Primero.* Aprobar y publicar en la página web municipal la lista provisional de personas aspirantes admitidas y excluidas (anexo I).

Se informa de que para acceder a dicho documento será necesario utilizar la clave que se recibirá por correo electrónico o sms.

Las personas interesadas podrán formular reclamaciones contra la presente resolución, en el término de los de diez días hábiles contados a partir del día siguiente a esta publicación. Si dentro de dicho plazo no se hubieran presentado reclamaciones, se entenderá elevada a definitiva la lista de aspirantes.

La reclamación debe realizarse por cualquiera de las siguientes vías:

— La presentación por procedimientos electrónicos se podrá realizar, o bien, mediante el Registro Telemático; o bien, desde la propia convocatoria dentro del apartado «Oferta de empleo» de la página web www.donostia.eus.

— La presentación presencial se podrá realizar en el Registro General del Ayuntamiento de San Sebastián ubicado en las oficinas del servicio de Udalinfo. Asimismo, se podrá realizar en cualquiera de los lugares que señala el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Púbicas.

*Segundo.* Nombrar el Tribunal Calificador, que estará formado por los miembros recogidos en el anexo II publicado en la página web municipal.»

San Sebastián, a 22 de mayo de 2023.—La directora de Gestión de Personas, Maribel Iñiguez Azurmendi. (3844)

EK\CV GAO-I-2023-03844